

GIDATU - Lan-aukerak sortzen

Ikastaroa: kutxazain apal-betetzailea

ASMOAREN HELBURUA

- Autonomia pertsonala eta integrazio komunitarioa sendotzea. Sarean jardutea udalerriko hainbat eragilerekin batera.
- Lana bilatzen laguntzeko ibilbide pertsonalizatua egitea.
- Gaitasun pertsonalak hobetzea. Prestakuntza-baliabideak eskaintzea.
- Merkataritza alorrean aritzeko lan-gaitasunean prestatzea.
- Pertsonen laneratzen laguntzea.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Langabezian egotea.
- 25 urte edo gehiago eta 55 urte baino gutxiago izatea.
- Familia-kargak izatea.
- Eibarren erroldatutakoa izatea.
- Gaztelaniaz, mintzatuan eta idatzian, ulermen maila egokia izatea.
- Honako baldintza hauetako bat betetzea:
 - Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzea (DBE).
 - Kualifikazio eskasa edo kualifikaziorik ez izatea.
 - Denbora luzeko langabea izatea.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Eskaerak PEGORAn aurkeztu behar dira. Azken eguna: uztailak 14. Hauek dira aurkeztu behar diren dokumentuak:

- a) **GIDATU_Lan-aukerak sortzen** programan parte hartzeko eskaera behar bezala beteta. PEGORAn eta udal webgunean dago orria eskura (www.eibar.eus).
- b) Familia-liburuaren fotokopia.
- c) LANBIDEk egindako ziurtagiria/txostena langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- d) Curriculum vitae eguneratua.
- e) Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen egonez gero, hori egiaztatzen duen dokumentua.

PROGRAMAREN GARAPENA.

1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
2. BANAKAKO ETA TALDEKAKO JARRAIPENA.
 - a. Diagnostiko espezializatua.
 - b. Laneratzeko plan pertsonala.
3. AHALDUNTZE-EKINTZAK.
 - a. Adimen emozionala.
 - b. Estresaren kudeaketa.
 - c. Denboraren kudeaketa.
4. LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA PRAKTIKAK.
 - a. Kutxa-eragiketak produktuak saltzean eta birjartzean.
 - b. Lanekoak ez diren praktikak.
5. LANERATZE-PROZESUAN LAGUNTZEA.
 - a. Prozesu osoan zehar laguntzea.